


# BALEIKE

200 pta.

73. zenb.



● **Dragaketa  
lanei onezpena  
Epaitegi  
Gorenak**

● **"Goiko"  
bodegoia:  
txikiteoaren  
historia**

● **Keixeta:  
Agoitz Hiria  
lehiaketan  
irabazle**

● **Datorrenean bai!**



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

# ERROTA



# OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60



Juan Belmonte 29, behea.  
tel.: 943 86 15 45  
faxes: 943 86 17 42  
e-mail: baleike@topagunea.com

#### Argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

#### Administrazio batzardea

Xabier Azkue  
Esther Etxeberria  
Aintzane del Pilar

#### Erredakzio batzardea

Antxoka Agirre  
J.L. Romatet  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta

#### Kazetariak

Antxoka Agirre  
Gorka Zabaleta  
J.L. Romatet

#### Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Jon  
Manzisor, Haize  
Galarraga, Fototeka,  
Andoni Ormazuri, etab.

#### Komikia

Javier Navarro

#### Argazkiak

Eva Franco  
Baleike

#### Diseinua

Juan Luis Blanco

#### Maketazioa

Argi Aizpurua

#### Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue, Imanol  
Azkue

#### Banaketa

Andoni Ormazuri,  
J.J. Aizpurua

#### Publizitatea

Esther Etxeberria  
(943 861545)

#### Inprimategia

Gertu Inprimategia  
(Zubillaga - Oñati)

#### Tirada

1.000 ale

#### Lege gordailua

SS-405/94

#### ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Untziko liburua



Antxoka Agirre

Sareen sarea deitzen diote Ameriketara eta mundu zibilizatuan ehundaka mila nabigatzaile bertan harrapatuak gelditu direlako.

Duela pare bat hilabete jarri nuen etxean, eta noiz edo noiz irten naiz nabigatzera, aspertuta egon eta zer harrapatuko ote nuen probatzera.

‘Todo a cien’-eko denda erraldoi bat iruditu zait: horoskopoa, mundu guztiko eguraldiak, ‘Take That’-en fans-en kluba, eskudo heraldikoak, Madril eta Bartzelonako diskotekak, karta jokoak, Pablo Milanesen kantuen partiturak...

Bere interesa badauka, baina askotan gelditu naiz enkailatuta, galduta atera naizen gehienetan, eta arrainak harrapatu bai, baina nik nahi nuena ia inoiz ez.

Sareari buruzko informazioa falta da, telebistako anuntzioak eurak ere konpresenak baino arraragoak dira. Eta sarean bertan baliozko informazioaren gabezia dago, batik bat hemen ingurukoa: zine kartelerak, musika ona, lan merkatua, garraiobideen ordutegiak, bertan egindako kazetaritza, etab.

Euskal Herriari buruz aurki daitekeenaren hamarretik bederatzia euskaldunen ehiza gose diren ‘bakezaleen’ web orriak dira. Batzuetan itsaso edo sare hauek utzi eta betiko txintxorroarekin txibitara joateko gogoa ere ematen du.

Gauza majoak ere badaude ordea eta internet geroz eta beharrezkoagoa bihurtuko denez, ikasi egin behar. Nabigatzaile despistatuentzako pare bat helbide: [www.jalgi.com](http://www.jalgi.com) euskal bilatzailea eta barre batzuk egin nahi dituenarentzat [www.granavenida.com/lacroqueta/](http://www.granavenida.com/lacroqueta/).

## Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak





**Gonzalo Torreri erantzuna**

Ez naiz sartuko inoren sufrimendua kuestionatzera, bai ordea zure idatzian agertzen den eta EHko jende askok konpartitzen duen ikuspegia kuestionatzera.

Alde batetik ETaren estrategiarekin bat ez zatozela diozu. Esaldi honetatik zu ETaren existentziaren aurka zaudela inferitu dezakegula dirudi. Baina bestalde zuk egoeraren konponbide bezala imajinatzen duzun eszenario horretan ETak negoziazioan parte hartu behar lukeela diozu. Herri honen etorkizuna erabakiko den eszenario posible honetan ETA egotea nahi duzu. ETari legitimitatea ematen diozu beraz.

Horren atzean sumatu daitekeen ikuspegia honakoa da:

- Herri honek libreki bere etorkizuna erabakitzeke ETak negoziazio mahai gainean egon behar du.

Zu ez zaude ETaren existentziaren aurka, gehienez bere estrategiaren kontra. ETA banda armatu bat besterik ez da; beraz zeren, zeinen izenean du herri honen nondik-norakoa erabakitzeke eskubidea? EH du sostengu ideologikoa eta EHrena da bere errepresentazio politikoa, beraz EH da bere ekintzak gaitzesten ez dituen neurrian, bere jardueraren erresponsabilitate politikoa bere gain hartzen duena.

Ildo honetatik EHren jarrera orokor- rrean eta Zumaiako EHrena konkretuki orain arte esan dudana- rekin guztiz uztartzen da. Zuen herrikide bat ETak erail ondoren zuen onspena eman duzue (ez duzue gaizki egin duenik esan). Hitz egin behar zenuten foroan ez duzue hitz

egin (Udaletxean alegia), zuen iritzia Baleiken kaleratzera besterik ez zaretelarik iritsi.

Herri bat herritarrok osatzen dugu. Guztiok barneratuko gaituen herri proiektu batek besterik ez du zentzurik. Artifizialki, indarrezko posturetatik eta koakziotik sortutako herria, sortzen den momentutik madarikatua dago.

Egoera hobetzeko herritarrok dugu giltzarria. ETaren morroi jarraitzen duen EHri, babes politikoa ematen dioten herritarrek, gure herriari koakzio eta heriotza besterik ez diote ekartzen. ETA ez da ekidin ezin daitekeen fenomeno natural bat eta herritarren esku dago zerbait egitea.

**MIKEL KORTA**

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES IZOZTUAK

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 862309

**ALBAITARITZA KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea  
Tel. 143310  
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

dekorazioa

**ALBERDI**

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

**Alberdi**

*Gizonezkoen moda*

Erribera kalea, 6  
Tel. 861155

**ANA**

ETXERO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

**Antonio Etxabe**

*Gizonezkoen erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 861407

**2001**ean Baleike hamabostekari  
bihurtu eta **harpidetza** bidez  
bakarrik banatuko da

# ez gaude salgai

egin zaitez harpidedun!!



## Harpidetza orria

Orri honetako datu guztiak bete eta honako tokietako  
batean utz dezakezu:

- Baleikeko lokalean
- Foronda kultur etxean
- Taosa liburu-dendan
- Aizpurua liburu-dendan

Bestela deitu arratsaldez 943 861545 telefonora edota bidali  
mezu bat gure helbide elektronikora:  
[baleike@topagunea.com](mailto:baleike@topagunea.com)

Urteko kuota (22 zenbaki): 4.000 pta.

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

TELEFONOA:

KONTU ZENBAKIA (20 digituak):

OHARRA: Dagoeneko harpidedun zaretenei automatikoki berrituko dizuegu harpidetza, kontrarik esaten ez badiguzue behintzat.



Itzurun, 1

Tel. 143224



*Okjndegia  
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 861521



Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85



Epaitegi Gorenak ezezkoa eman dio Zumaia Biziriken errekurtsuari

## Portuko dragaketa lanei onespina eman dio Epaitegi Gorenak

Zumaiako barra eraiki eta inauguratu denetik urte dezente pasa badira ere, oraindik ere albiste izaten jarraitzen du. Orain hilabete eta erdi inguru, irailaren 27an hain zuzen ere, Euskal Herriko Epaitegi Gorenak Zumaia Bizirik taldeak aurkeztutako errekurtsuari ezezkoa eman dio. Errekurtsio honen bidez, Josu Urangak, Zumaia Biziriken izenean, Zumaiako portuan egin beharreko dragaketa lanak gelditzea eskatzen zuen. Jaurlari-tzaren esanetan, dragaketa lanak bost urtean behin errepikatu beharko dira.

Errekurtsio hau Zumaia Bizirikek Euskal Herriko Boletinean Zumaiako portuko bokalean egin beharreko

dragaketa lanak lehiaketara ateratzeko iragarkia argitaratu eta berehala etorri zen. Zumaia Bizirikek Epaitegi Gorenari lan horiek geldiaraztea eskatzen zion, harik eta dragaketa lanak legearen barruan zeudela egiaztatu arte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esanetan, aldiz, dragaketa lan horiek portuko bokalearen eta nabigazio kanalaren zingoa gordetzeko mantenimendu lanak dira. Instituzioak jakinarazi zuenez lan horiek bost urtean behin errepikatu beharko lirateke. Dragaketa lan horiek geratzeak Zumaiako portuari kalte handia egingo



lioke, itsas segurtasunaren aurka joango bailitzateke.

Angel Ruiz, Jose Felix Martin eta Jose Antonio Alberdi epaileek osatutako Epaitegi Gorenaren erabakian agertzen denez, Zumaia Bizirikek aurkeztutako errekurtsioa atzera bota dute Administrazioak aurkeztutako dokumentazioan agertzen denari kasu eginaz. Epaile horien esanetan Instituzioek aurkeztutako txostenek argi uzten dute lan hauek itsas segurtasuna gordetzeko beharrezkoak direla eta lan horiek gainera behin eta berriz egin beharrekoak direla. Epaitegiak aipatzen duenez, lan hauek ez dute zerikusirik 1997ko ekainaren 4ko epaiak balio gabetutako proiektuarekin. Gogoratu orain hiru urteko epai hark barrako proiektua balio gabetu egin zuela legedi aldetik egindako irregularitate batzuk zirela medio.

Epaia jaramon eginez, behintzat, hemendik denbora batera berriz ere dragaketa lanak egin beharko dira Zumaiako portu inguruan, eta ez hori bakarrik, lan horiek bost urtean behin errepikatu beharko dira. Instituzioek beraiek, orain urte batzuk, barra honek portuaren sarrera autodragatuko zuela zioten. Urte gutxiren barruan aldaketa handia izan dute Instituzioek gauza onerako.

◀ JUAN LUIS ROMATET

**AUTO-ESKOLA**

**ZUMAI A**

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea


Basadi, 12 behea Tel. 861018

**Azkue Autoak**

Tel. 861433  
Faxa: 861067

Estazioko kalea, 19

# Zumaiako mapa toponimikoa jada etxeetan



Pasa berri dugun urriaren 20an aurkeztu zen Foronda Kultur Etxean Zumaiako mapa toponimikoa. Mapa hau aurkezten izan ziren, bertan, alde batetik, Maria Eugenia Arrizabalaga kultur zinegotzia, eta bestetik Etnogintza elkarteko kide den Luis del Barrio. Azken hau da, hain zuzen ere Euskara Batzordearen aginduz eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde, Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren dirulaguntzarekin, lan hau aurrera eramateaz arduratu dena. Enpresa honek beste hogeita lau herritan egin ditu honelako lanak.

Mapak 1:10.000 eskala du eta 35 km-ko azalera irudikatzen du. Eraikin guztiak, ubide eta bideak, eta toponimia nagusia jasotzen dira bertan, eta piktogramen bidez interes historiko-etnografiko berezikoak diren elementu guztiak (dorretxe, eliza, hartzulo, etab.) eta erabilera publikoa izan dezaketenak (gasolindegia, landa turismo, etab.) nabarmendu ditu.

Luis del Barrio izan da azken hilabete hauetan Zumaiako txokoak bisitatu dituenak. Lekuen izenak agertzeaz gain, mapa kartografiko-toponimiko

honetan herriko baserrien berri ere ematen da, eta bakoitzaren argazki bat ere agertzen da. Nahiko zehatza bada ere, hutsune batzuk ere nabarmen dira, Oiztoko iturriarena adibidez.

Dagoeneko mapa honen ale bana banatu da herriko etxeetan. Orain norberak begirada bat bota dezala eta falta den izen bat sumatzen bada, Udaleko Euskara Sailean aurkeztea komeni da egunen batean edizio berri bat kaleratzeko asmoa ere izango baita ziur aski.

◀ JUAN LUIS ROMATET



**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI  
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea  
Tel: 943 14 31 12

Karmengo Ama, 14  
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskainet.net



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L



**BASUSTA  
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

**CORO  
PRIETO**  
*Esteticista*

Tel. 861322  
Bonifazio Etxegarai plazatxoia z/g

**EGOKI**



Erloju  
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

# Zumaiako portuaren historia liburua kalean

Aste batzuetatik hona, liburu dendetan Zumaiaren historiari buruzko beste argitalpen bat daukagu. Liburu berri hau Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri-Lan Sailaren bidez argitaratu da, eta Aranzadi elkarteko Lourdes Odriozola Oyarbide izan da argitalpena lantzeaz arduratu dena. Liburuaren izena "Zumaiako Portuaren azterketa historikoa. Zumaia: portu baten historia" da eta 5.000 pezetaren truke eraman dezakezu etxera.

Liburu berri hau Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri-Lan Sailak sustatzen duen Euskadiko portuaren azterketa historikoaren barne sartzen da, eta egilea Aranzadi zientzia elkarteko historia arkeologikoaren saila da. Bilduma honen barne, jada beste lau liburu argitaratu dira: Bermeo, Armintza, Getaria eta Ondarroako portuetako historia liburuak.



Liburuaren aurkezpenean agertzen den bezala, liburu honetan portuaren garatu izan diren jarduerak ekonomikoak eta azpiegituren bilakaera aztertu nahi izan da, alde batera utziz kai honek burura ekartzen dituen beste hainbat gai interesgarri. Argitalpen hau hiru arlotan banatu da: baldintzatzaile geografikoak, azpiegituren bilakaera eta Zumaiako portuarekin erlazionaturako sektore ekonomikoen azterketa.

Zumaiako kaia industria eta komertzio aldetik ezaguna denez, liburu honetan gai hauei ematen zaie garrantzia, eta alde batera utzi da herriko arrantza mundua. Bertan aipatzen denez, eta nahiz eta arrantzale zumaiarrek herriaren alde lan ugari egin, sektore ekonomiko hau ez da industriarena bezain garrantzitsua izan Zumaiako

historian eta horregatik liburu hau egitean alde batera utzi da.

Esan bezala, liburuaren egilea Lourdes Odriozola Oyarbide izan da. Askok gogoratuko duzuen bezala, historialari honek kaleratu zuen Zumaiari buruzko liburu mardul bat, 650. urteurrena ospatzen zela-eta argitaratu zen "Zumaiako Historia" liburu, alegia. Argitalpen berri honetarako bi fasetan banatu du lana. Alde batetik, historian zehar Zumaia eta bere portuari buruz argitaratu diren liburu eta testuak batu ditu. Bestetik, Zumaiako Udal Artxiboan eta probintzi eta estatu mailako artxiboetan murgildu da. Horren helburua datu berriak jasotzea izan da, eta horrela etorkizunean lan berriak egiteko aurkera edukitzea.

Liburuan aipatzen denez, lanaren helburua beste ikerketa batzuei bidea irekitzea izan da, horrela Zumaiaren egoera, (eta aldi berean Gipuzkoa osoko egoera) zein den hobeto jakiteko. ◀ **JUAN LUIS ROMATET**

Lourdes Odriozola, liburuaren egilea

**EGUZKI PUB**  
Koktel bereziak  
Basadi Auzategia, 9-A 2-B

Arantza Aramendi  
**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA  
Harategi kalea, 25 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

**ENARA, S.L.**  
INPRIMATEGIA  
Amiaiko plaza, 15  
Tel. 862458





## Festarik ez Txitxarroko igoera-jaitsieran

Txirrindularien denboraldiari amaiera emateko, pasa den urriaren 28an izan zen Txitxarroko igoera-jaitsieraren XVIII. ekitaldia. Orain arte txirrindulariek denboraldi gogorrari agur egiteko aukeratzen zuen proba hau festa alai bihurtzen bazen, aurtengoan ez da jairik ez festa girorik izan. Horren arrazoia, noski, uda honetan proba honen antolatzaileek jasan dituzten bi atentatuak dira.

Ez zen ez festarik ez irabazlerik izan aurtengo ekitaldian. Txitxarroko

proba, ohi den bezala, arratsaldeko 5etan hasi zen zikloturisten Txitxarro dantzalekurako igoerarekin. Aurreko urteetan baino txirrindulari gehiagok hartu zuten parte igoera honetan. Zikloturista horiek taldean igo ondoren, txirrindulari profesional, afizionatu eta erretiratuen txanda heldu zen. Normalean bigarren proba hau, Txitxarroto Zumaierako jaitsiera, erlojuaren aurka egiten bada, aurtengoan parte-hartzaileek taldean jaiste erabaki zuten, probak irabazlerik ez izateko. Arratsaldeko 6ak

inguruan heldu ziren tropelean Eusebio Gurrutxaga enparantzara. Taldearen buru Marino Lejarreta zen eta atzetik parte hartzen zuten txirrindulari guztiak, zikloturistak barne.

Aurtengo ekitaldiari amaiera emateko, enparantza bertan txirrindulariek omenaldi bat eskaini zieten proba honen antolatzaileei, hau da, Korta familiarri. Omenaldi bezala, Marino Lejarreta txirrindulari ohiak Narziso Kortari Euskadiko selekzioaren maillot bat oparitu zion. Maillot hau proban parte hartu zuten txirrindulari guztiak sinatu zuten. Bertan euskaraz idatzitako esaldi bat irakur zitekeen: "Euskal txirrindulariok garaipen onak lortu ditugu, baina hobereena guztiok batera, lagun giroan denboraldia agurtzea. Garaipen hori taldeburuari zor diogu: Txitxarrori. Eskerrik asko". Ekitaldiari amaiera emateko, Narziso berak hartu zuen hitza, eta bertara agertu zirenei eskerrak eman ondoren, datozen urteetan proba hau berriro korritzeko desioa agertu zuen.

Bitartean, txirrindulariak, (hauen artean Mikel Zarrabeitia, Unai eta Aitor Osa, David Etxeberria), haurrentzako posterrak eta argazkiak sinatzen ibili ziren buru-belarri. Honela eman zitzaion amaiera aurtengo ekitaldiari, festarik gabe.

◀ JUAN LUIS ROMATET

**ekin**  
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak  
instalazio musikalak  
antenak - parabolikoak  
akumuladoreak  
portero automatikoak  
telefonía

Televés  
Instalador  
Oficial

MoviStar

MoviLine

Erribera, 18  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel./Faxa 943 - 143097  
629 - 450777

CANAL+

CANAL DIGITAL

**expert**



**ELEKTROGAILUAK**

MERTXE AIZPURUA


Etkezaretza, 6

Tel. 861078

*Foto* **Amertxe**

**profesionalak gara  
etor zaitez!**

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 943 861707



Auto-konponketak

**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



**PEUGEOT**

## 2000ko Asteburu Mikologikoa

Azken urteetan bezala, Zumaiako Natur Taldeak antolatutako Asteburu Mikologikoa perretxiko dastaketa-rekin hasi zen. Herriko tabernariak prestatu zituzten pintxoak ez zuten asko iraun Kofradiako plazatxoan jarri ziren momentutik. Era guztietako pintxoak aurki zitezkeen bertan, nahiz eta berandu iritsi zirenek plater hutsak besterik ez aurkitu.

Ostiralean tripa ederki bete ondoren, larunbat goizean goiz mendira irten ziren Natur Taldekoak, igandeko erakusketa osatuko zuten perretxikoak biltzera. Batzuk Landasetara, beste batzuk Aralarrera eta besteak hemen inguruko lekuetara. Bildutako perretxiko guztiak arratsaldean zehar sailkatu zituzten Odieta frontoian. Laguntzaile lanetan Aranzadi elkarteko kideak izan zituzten.

Asteburuari amaiera emateko, erakusketa handi bat eratu zen Odieta pilotalekuan. Bildutako perretxikoak sailkatu, txukun-txukun jarri eta ateak irekitzea besterik ez zen falta. Goizeko lehen orduetatik hurbildu ziren lehen kuriosoak pilotalekura. Bertan adituen azalpenak ere jaso zituzten. Egun guztian jendea jaso ondoren, iluntzean itxi zituen ateak erakusketa eta aurtengo ekitaldiari amaiera eman zitzaion.



**ERTZ** informatika



ORDENAGAILUAK  
CD-ROM  
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

**Galdona**



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346  
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330



# munduko txapelketa



## **Alberdi eta Enbil, mundial, ia txapeldun**

Txapelketa hasieran ez ziren zumaiarrak faboritoen artean ageri, lehenbiziko partida galdu ondoren are gutxiago, baina bai ligaxkan eta baita finalerdietan ere partidu erabakigarrietan joko bikaina erakutsi eta finalean sartzea lortu zuten.

Irastorza "handia" (1'95 cm) eta Etxalus beteranoa izango zituzten aurrez aurre. Adituek Irastorza eta Enbilen arteko borroka latza izango zela zioten, eta hor egon zitekeela partidako gakoa; baina ez, aurrealdean erabaki zen kontua. Pierre Etxalusek erremate bikainak egin zituen eta guztira 20 tanto egin zituen, horietako batzuk Alberdiren sakea aprobetxatuz. Luis Marik, berriz, arriskatu egin zuen,

baina gauzak ez zitzaizkion nahi bezala atera; izan ere, Etxalusen sakea erretoan txokora botatzen saiatu zen gehienetan txapapera joan zitzaion, eta Etxalusek "jugada" bera egin zionean ezin izan zituen jaso.

Gotzonek partida oso ona jokatu zuen. Defentsan bikain aritu zen eta jendeak txalo zaparrada ederra eskaini zion ezker paretan gora salto egin eta pilota oso zail bat jaso zuenean.

Partida hasiera samarretik hasi zitzairen alde egiten, 11-3 aurretik jarri baitzen Iparraldeko bikotea. Pixka bat zentratu eta jokatzen hasi zirenean 16-12koa lortu zuten Alberdi eta Enbilek, jendearen animoek lagunduta. Lau-

*Finalera ondo kostata iritsi ondoren, azkenean zumaiarrek ezin izan zuten 2000ko Munduko Zesta Txapelketa irabazi. Urriaren 20an Gernikan jokatutako partidaren 35 eta 24 galdu zuten Etxalus eta Irastorzaren aurka. Zumaiar ugari bertaratu zen, autobusa beteta eta beste asko autoetan, baina ezin izan zuten beren nahia bete, Gotzon eta Luis Mariren buruak txapelaz estalita ikustea, alegia.*

bost tantoko alde hori, ordea, hamarrera igo zen 28-18arekin, eta gerora ezin izan zuten diferentzia handi hori jan. Eta halaxe amaitu zen partida. Nahi eta ezin.

Marka ederra egin dute Luis Mari eta Gotzonek, ordea, Munduko Txapelketan zilarrezko domina eskuratzea ez baita txantxetako kontua. Kontuan hartu behar da, gainera, Felix bezalako txapeldun handia atzean uztea lortu dutela. Lau urte dira profesionaletarako urratsa eman zutela, eta bidea urratu eta urrutira iritsi direla esan liteke. Oraindik ere seguruenak berri on gehiago ekarriko dizkigute, hala ere. ◀ **XABIER AZKUE**

**GANBARA**  
Taberna  
Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

KAFETEGIA  
**GARROA**  
JATETXEA  
TXOMIN AGIRRE KAIA  
TEL. 943 86 21 81

**gofi**  
haur jantziak  
Amiako plaza z/g Tel. 860959



Luis Mari Alberdi eta  
Gotzon Enbil  
Munduko Zesta  
txapeldunordeak

## "Momentuan amorrua ematen du, baina orain gustura gaude"

**■ Partida jokatu zenetik pasatu dira egun batzuk. Nola hartu duzue hura guztia?**

G- Finalera iristen zarenean irabazi egin nahi duzu eta galdutakoan, aurreneko momentuan, mala ostian jartzen zara, paliza eman ziguten gainera. Baina buelta ere azkar ematen diozu, mundu guztia etorri zitzaigun bukatu eta segituan, eta bigarren gelditzea ondo dagoela konturatzen zara.

L.M- Partida bideoan ikusi dut pare bat aldiz eta pentsatzen duzu, hemen hau egin banu edo beste hori. Lehenengo gauean ere makina bat buelta eman nion buruari. Baina onena gauza horiek ahaztea da, eta egindakoarekin disfrutatzea, papel oso ona izan baita. Txapelketa hasieran finalera iritsiko ginela esan baligute ez genuen sinetsi ere egingo, eta finalerdietan lehenengo

*Afizionatuetan elkarrekin dena irabazi eta profesionaletara egun berdinean pasa ondoren, berriro ere elkarrekin egin dute lorpen handiena. Txapelketa honek onenen mailan daudela behin betiko konfirmatzeko balio izan die, eta Zumaian afizio bikaina dutela ikusteko ere bai.*

**GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA  
**ARGIDENDA**

*Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrilici eta herriko argietan*

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24  
Tel. mugikorra: 908 -143409

*gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

San Pedro kalea

partidua askogatik galdu ondoren kriston sorpresa izan zen pasatzea.

**■ Zer suposatzen du zuentzat munduko txapelkunorde izateak?**

G- Munduko txapelketaren finala jokatzeko oso garrantzitsua da, eta gainera 23 eta 26 urterekin. Oso ondo dago.

***"Zumaiako eskola oso lan ona ari da egiten"***

L.M- Nik uste puntako bezala konfirmatzen gaituela. Munduko bigarrenak gure esatea gehiegikeria litzateke, txapelketak neurri handi batean daukazu momentuaren arabera erabakitzen baitira, baina bestela ere denboraldi polita egin dugu biok eta txapelketa garrantzitsuenean bigarren eginda maila badaukagula demostratu dugu.

**■ Zein da egingo zenuketen partiduaren kronika.**

G- Hasiera-hasieratik zortzi tantoko aldea atera ziguten. Nerbiosoegi geunden eta kosta egin zitzaigun arrankatzea. Gero erreakzio bat izan genuen eta 16 eta 13raino gerturatu ginen. Momentu horietan pentsatu nuen aguantatuko genielako, baina euren aurrelaria dena ondo egiten hasi zen eta 25-16an edo ikusten zen ezin zela.

L.M- Hasieratik aurrea hartu ziguten eta arriskatu beharrean geunden. Gainera Irastortza oso ondo ibili da txapelketa guztian eta aukerarik onena aurrelaria nahastea zela iruditzen zitzaidan. Hasieran egin nituen erremate on batzuk, baina gero ez zitzaidan ezer ateratzen eta Etxalusi berriz dena.



**Luis Mari Alberdi**

**Adina:** 26  
**Altuera:** 1'78  
**Pisua:** 74  
**Palmaresa:**

- Afizionatuetan: taldekako Europako txapelkun eta 22 urtez azpiko Kubako Munduko Txapelketan bigarren, besteak beste.

- Profesionaletan: Munduko Txapelketan txapelkunorde, Interkontinental eta Espainiako Txapelketa bat.

**Jokoa:** Hanka arinak eta errebotatzeko habilitate handia.



**Gotzon Enbil**

**Adina:** 23  
**Altuera:** 1'82  
**Pisua:** 80  
**Palmaresa:**

- Afizionatuetan: taldekako Europako txapelkun eta 22 urtez azpiko Kubako Munduko Txapelketan bigarren, besteak beste.

- Profesionaletan: Munduko Txapelketan txapelkunorde, bi Euskadiko Txapelketa eta Espainiako Txapelketa bat.

**Jokoa:** Eskuin kolpe ona eta jauzi ikusgarriak

**■ Afizioa hor izan zenuten partidu guztian zehar animatzen.**

G- Koadrilakoen autobus bat muntatu zuten. Zalla-n papela bat jarri zuten eta 50 bat lagun apuntatu ziren. Aparte, kotxeetan joandako jendea ere bazegoela ikusi nuen. Jendetza joan zen.

L.M- Takada batean bi txapel ekar zitezkeen herrira. Horrek motibazio berezia ematen zigun Gotzon eta bioi eta nik uste herriko jendearentzat ere ikusteko oso partida polita zela.

G- Aste honetan zehar ere herrian jende askok gelditu nau zoriontzeko eta animoak emateko. Ikusten da jendeak bastante bizi izan duela.

**GIZARTEKINTZA zentru soziala**

**KAFETEGIA - JATETXEA**

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia  
 Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

• denontzat-irekia

English School  
**Harvest**

Ingelesko klaseak adin guztietan  
 San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

**B Gutxitan ikusten den gauza izango da herri bereko bi jokalarri elkarrekin Munduko Txapelketako finalera iristea.**

G- Bat iristea zaila baldin bada, bi iristea doble zaila. Edo zailagoa.

**"Zestako partidu batek inoiz izandako audientzia handiena izan zuen ETB-k"**

L.M- Nik uste Zumaiako eskolaren meritua ere badagoela hor. Manuel Mugerza eta Eustakio tolosarra ibili dira eta pelotari mordoa atera da: Osa anaiak (Luis, Iñaki eta Igor), Mugerza anaiak (Mikel, Juan Ramon eta Manu), Unai Zinkunegi eta gu biok profesional bezala gabilta, badaude Zumaiakoak izan gabe bertan ikasitako beste profesional batzuk, eta profesionaletarako pausoa ematekotan dabiltzan beste batzuk ere bai.

G.- Frontoietan jendea entzuten zaio 'jo, zenbat jende ari den ateratzen Zumaiatik'. Lan ona egiten ari dira.

**B Osparkizun berezirik egin al duzue?**

G- Partidaren hurrengo egunean bazkaria egin genuen koadrilakoek.

L.M- Ni Arrasaten bizi naiz orain eta bertan egin nuen afaria familia eta neskaren familiarekin. Zumaian ere egingo dut zerbait lagunekin astia bilatzen dudanean, badaukat gogoia.

**B Komunikabideekin ere lan dezente izan duzue, ezta?**

G- Batik bat partida aurreko astean. Entenditzen dut prentsan eta telebistan ateratzea ona dela promozionatu egiten duelako, baina pixkat mareantea ere izan da. Jokatu aurretik

onena ahal bada partidua ahaztea da, baina ezinezkoa izan da.

L.M- Entzun dudanez, partidak ehun mila ikusle izan zituen ETBtik. Zestako partidu batek inoiz izan duen audientziarik altuena.

**B Oporraldi bat edo hartu beharko duzue orain?**

G- Ameriketara noa hamar bat egunerako partida batzuk jokatzera eta bakazio moduko batzuk izango dira. Gogoa daukat han probatzeko, sei hilabeteko egonaldiaren bat-edo egiteko, eta pixka bat ezagutzera noa orain.

L.M- Ba, oporrak ez, baina denboraldiak geldiene bat dauka orain, eta pixkat deskantsatuko dugu. Udar partida asko izaten ditugu, hilean dozena inguru. Gero, abenduan, berriro ere berotzen da, baina hilabete honetan ez da gauza handirik egoten.

**B Noizko Munduko Txapela Zumaiara?**

G- Asmoa badaukagu, baina urtean zehar ondoen dabiltzan zortzi bikoteek hartzen dute parte eta guztiak izaten dute irabazteko asmoa.

L.M- Saiatuko gara.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

**Hemengo martxa eta Ameriketako**

Gotzon eta Luis Mariren eritziz zestako mundua ez gora eta ez behera dabil azken urteetan. "Telebista eskuarekin asko sartu da eta diru asko utzi du. Gero enpresa bat baino gehiago ere badago eta horrek bultzada handia eman die" diote. Zestan enpresa bakarra dago, eta urtean 60 partidutako kontratua egiten du ETB-rekin.

Aldaketarik handiena pilotarien aldaketa generazionala litzateke. Urte askotan Remen, Katxin Uriarte edo Felix bezelako figurek jokatu izan dituzte final guztiak, baina duela hirulau urtetatik ona jende berria oso indartsu sartu da, eta azken final honetan esaterako hiruroi jokalarri 26 urtetik beherakoak ziren.

Profesionalak diren arren Luis Marik esaterako Azkoitiko tailer batean egiten du lan, eta preparazio guztia ere euren kontura egiten dute; astezken eta ostiraletan Donostiako Baldan egiten dituzte saio batzuk eta gainerantzean lan fisikoa. Denboraldiaren egutegiari dagokionez urte guztian astelenero partiduak egoten dira Gernikan, udaran igandero Markinan eta neguan larunbatero Bilbon. Eta gero bolada fuerteak daude, herrietako festetako torneoekin eta txapelketa nagusiekin, astean bizpahiru partidu jokatuaz: Udara urriraino eta abendua-urtarrila.

Beste erreferentzia ameriketako frontoiak dira. Gotzon ikasketekin aritu denez ez da oraindik joan, baina Luis Marik egin zuen sei hilabetetako egonaldi bat. "Han dena da haundiagoa" dio "frontoiak, afizioa, pelotari kopurua, enpresa kopurua eta baita diru kopuruak ere". Kiniela sistemarekin jokaten dute: Zortzi bikote daude, tantu bakoitzean galtzen duena kaleratu eta hurrengo bikotea sartzen delarik, eta zazpi tantu egiten dituenak irabazten du. Esperientzia interesgarria izan zela dio Luis Marik baina nahiago duela hemen jokatu. "Sistema hori apustua mugitzeko oso ona da, baina pelotariarentzat aldrebesa, arratxa on bat hartu ezean ez bait duzu izerdirik ere ateratzen" dio.

Gotzon, berriz, probatzeko gogoarekin dago.





## Datorren urtian gehiyo

Kanpua euri zaparra earrak, ta gustoa sartu gea Gernikako frontoian. Eskaillea batzuk iyo ta hara non agertzen dian Telefonikako bi azafata bixera partitzen! Totele ta konpañia seittuan ingurau dia, ta baita bixera urdiñak belaxe jantzi're. Lehenbiziko zerbezak hartu ta erdialdian ixeri gea, nahiko toki onian. Gotzonen kuadrillakuek kamixeta dotore batzuk atea dittue, "Aupa Enbil" jartzen dutenak, baiña horrek ez du esan nahi Luix animauko ez dutenikan! Autobusa beteta bai, baiña baten lagunak ta bestian familikuak'e bai, azkenian zumaiar mordua juntau gea. "Aupa Zumayaaaaa!!!!!" oihukatu du neska batek aurreko aldian. Monika zala usten det.

Hasi da partidua. Bai gaixki hasi're. Hiru ta hutsa. "Putos gabatxos" somau da ixkiña batian. "Hi, nahikua iu; hamen danok gatzuk euskaldunak; guriak españolak al dia, ba?". Lehenengo tantua zumaiarrak; txaluak ta animuak, noski. Gorriyak berrize aurea jun dia, ordia, baiña Kontxan ez bezela zumaiarrak ez dijuaz gorritz gaurkuan. Anbientian bai, badao antza pixkat: hango "Aupa Zumaya", hango zerbezak, hango buillak... Bandera gorriya ta bonbua bakarrikan falta dia! "Hi Peio, karritxak beste pare bat zerbeza". Gaur tabernayak negoziyua zumaiarren kontura.

Alberdin tantua. Bazan garaya! Jendia tente jarri ta txalo batian. Evak earki aprobetxau du argazki bat atetzeko. Nik'e atea biharko det bat o beste. Etxalusek sakia in bihar dunian txistua jotzeie zumaiar batzuek; batzui ez zaku ondo iruittu: gauza bat guriak animatzia

da, ta bestia kontrayuai burla itia. Imanolek esan dun bezela frontoia sagraua da, eleiza izango balitzake bezela, ta oaindikan'e batzuk ez due ikasi nola portau bihar dan. Arrazoi du, hau ez dalako futbol kanpua ibiltzia bezelaxe. Iparraldekuak fiñauak dia hortan; bozina soiñua ateatzen dun espray hoyetako bat ekarri due, baiña tantua bukatzen danian bakarrik jotze ue, txalo artian.

"Aupa Luismariiiii!!!!!!". Ez du asmau oainguan. Nerbioso jartze ote deu? Zaila izango da gaur honei buelta ematia. Hoi dek saltua, Gotzon!! Telebisiyuan behin da berrize botako ue, baiña gu zuzenekuakin'e konformatzen gea. Tanto! Poto ta bere ingurukuak tente jarri ta txalo joka hasi dia. Ondo meezita! Hurrena jaikitzen dianian argazki bat ateako yet.

Alperrikan da. Irastorza jigantiak ez du iya bate hutsein, eta Etxalusek sekulako partidua jokau du. Zorionak! Oain bai, zumaiarrak tente, txaloka, bai irabazliai, bai Gotzon da Luismari. Fotografia profesional da ETBko kamara artian kamufflau naix, ta neuk'e argazki batzuk atea ttut.

Bukau da podiumeko zeremoniya. "Benga Gotzon, bukau zak behingoz entrebixta hoi ta torri hai taldeko argazkiya ateatzea!!". Hogeia lagunetik gorako talde bat zai dao atzeko paetan kontra, ta trajez jantzitako potzolo batek bialdu nahi gaittu (Totorika dala esan die, jefia), beste partidu bat hastea dijuala ta. "Eon pixkat, joe!". Halare, puntistak kantxa erten due ta jokutzen hasteko agindu ye. Badator Gotzon! Klik. Beste bat, bazpane! Klik.

Kantxatik ertetzeakuan txapeldun haundi batek, Katxiñek, esan diun bezela, DATORREN URTIAN GEHIYO!

**ILEAPAINDEGIA**  
**IRUITZ**



San Telmo, 12  
Tel. 860760

**ITSASKI**  
**SUPERMERKATUA**

Urumea kalea z/g  
Tel. 143058

**ITSY-BITSY**  
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan  
Cambridgerako azterketak  
Basadi, 2 Tel. 862373





## 'Goiko' bodegoia, txikiteoaren 40 urteko historia

*Aste batzuk badira herriko taberna zahar eta ezagunetarikoa, 'Goiko' bodegoia, behera bota zutenetik. Berria egiteko bota dute, ordea, zaharra. Hasiak dira zimentazio lanetan eta Santelmoetarako ireki nahi dituzte berriro ateak. Aitzakia egokia iruditu zaigu bertako bi ahizpekin tabernako kontuez hitz egiteko.*

58an ireki zuten Goiko. Errentan hartu zioten Gorrianeke Lazkanori. Horrek egurrarekin lan egiteko erabiltzen zuen lokala, eta aurretik, Zumaiak sagardotegi mordoxka bat zituen aspaldiko garaietan, Tapia zelako baten sagardotegia omen zegoen bertan.

Garai hartan, beheko plazatik gatzozela monjen ikastetxea, 'Banco San Sebastian', 'Alberdi' gozotegia, komun publikoak, linterneria, 'Berastegi' fruteria, Kojueneko denda, eta Uxarrueneko 'Aginagalde' taberna pasa behar ziren 'Goiko'-ra iritsi arte. Frentean, berriz, 'Hotel Zumaya'

lehenengo, 'Calzados Valenciaga', 'Etxabe IV' taberna, almenak eta ikaztegia. Eta gaur Amaiako plaza aldera jarraituko bagenu, 'Cantabrico' taberna, Juan Mari Balentziagaren tailerra, Axixkoloren sastreria, Luistarren zentroa eta 'Justa' batetik,

ITZURUN  
KIROLAK

Amaiako plaza, 13 Tel. 860758

ileapaindegia  
I Z E T A  
Urumea, 6 Tel. 862083

Larrañaga  
Juanjo  
HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

eta barberia, Manolin denda, eta Txikito Artadiren taberna bestetik.

Bodegoiaren 'balio historikoaren' seinale, ordukoetatik 'Alberdi' eta 'Justa' baino ez ziren gelditzen berarekin batera. Izatez, 'Justa'-ren atzetik Zumaiaiko tabernarik zaharrena izan omen daiteke.

Urte hauetan guztietan gurasoek eta Maria Luisa, Maria Antonia eta Anjel anai-arrebek atera dute aurrera. Maria Antoniak ezkondukatokan utzi egin zuen, baina bertan denbora gutxiago egin arren, edo agian horregatik, bera da aspaldiko kontuak ondoen gorde dituen. Orduko karta errezitatzen digu: txikitoa bi erreal, txakolina pezeta eta hogeitxentimo, porroi txikia bederatzitxentimo, handia lau pezeta eta erdi, eta kafea hiru pezeta eta erdi. Koñaka eta anixa ere bazituzten, garai hartan gorria eta zuria deitzen zitzaizkienak, bakoitza kupel txiki banatan, eta antxoa, sardina eta txorixo mokaduak ere ematen zituzten.

Txikiteorako lekua izan da beti 'Goiko'. Bertako espezialitatea ardoa. "Gure aita sibarita hutsa da. Usainetik igartzen dio ardoari nolakoa den, eta beti ona ekarri izan du. Hasiera haieran Cariñenakoa ekartzen zuen, 50 litroko kupeletan", dio Maria Antoniak.

Astean zehar, hamabietan hasten zen eguerdiko txikiteoa. "Hamabietan ateratzen ziren fabriketatik eta ordu bata aldera arte mugimendu handia egoten zen. Gero etxera joaten ziren bazkari mokadua egin eta ordu bata eta erdietarako berriz ere fabriketan sartzeko", kontatzen du Maria Luisak. Bazkalondoan aitona azaltzen ziren lehenengo, toki bila, arratsalde pasa



porroiarekin eserita egiteko. Eta hurrena arratsaldeko txikiteoa, lantokitik zazpirak aldera irten eta bederatzitxentimo arte. Gauean, gelditzen zirenak, kafe konpletua eta karta jokoa, ordu bata eta erdietan serenoak txalo joka ixtera etortzen ziren arte.

Bodegoian beti izan dute giro polita. "Sartu-irtena, jokoko marrua eta zorakeriak, xeble jendea eta adar jotzea ez zaigu inoiz falta izan", dio Maria Luisak. Enkargulekua ere izan omen da bodegoia, pakete, abixu eta abarreko mordia jasoaz.

Pasadizoak kontatzen hasita, txikiteroen grebarekin gogoratzen da Maria Antonia. Txikitoa 70 zentimotik pezetara igo zenean dezenteko saltsa egon omen zen eta Donostiako Parte Zaharrean greba ere egin omen zuten txikiteroek. Zumaian ez ziren horrenbesteraino iritsi, baina zenbaitzuek pezeta barraren gainean jarri eta basoa goraino betetzeko eskatzen omen zieten serio-serio. Bezeroen arteko bromak ere mila. "Kilkirrito,

adibidez, beti trainerua gora eta estropadak behera ibiltzen zen, ez zeukan patroia izatea beste ilusiorik, eta behin baino gehiagotan, Uzkudunetik bodegoira deitu Oriotik deitzen zutela esanaz, patroia behar zutela, eta bere berri izan zutela handik eta hemendik. Honek sinistu eta kriston juerga gero", kontatzen du Maria Luisak.

Borrokak ere bai, jendea orduan kargatuagoa ibiltzen omen zen-eta. "Ni ikusita nago, gizaseme bat 'indivíduo' deitu zutelako borroketan. '¡A mí nadie me llama individuo!', '¡pues yo sí!', '¡pues no!' eta benga kanpora" kontatzen du barrez. Edo bertsoetan elkarri kristorenak eta bi botatakoak...

Bezeroekin edukitako tratua oso ona izan omen da beti. "Etxeko giroa izan dugu, konfiantza handikoa", dio Maria Luisak. Barra ez da oztopo bat izan. "Itsasoan ibiltzen zen jendeak, antxoa eta atunak ekarri eta bodegoiaren ondoan geneukan parrila batean eurek prestatu eta eurek jaten zuten guk

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

*Juaristi*  
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 861853

 taberna  
**JUSTA**  
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

emandako ogiarekin", jartzen du adibide grafikoa Maria Antoniak.

Bezerorik onenen sariak banatze-rakoan hasiera batean ez daukate oso garbi "asko dira urteetan egunero etorritakoak", baina azkenean bodegoira lehenengo sartu ziren hirukote bat aipatzen dute. Kartela jartzen ari zirela, porroi eta guzti Clamades Blancok marraztutakoa, barraren atzekaldean inor jarri baino lehenago barrura sartu omen ziren Domingo Txintxilla, Mariano Galindo eta 'Nabarriko'. Moilan lan egiten zutenez han ibiltzen ziren bueltara "eta batik bat Txintxilla etxekoa bezala zen, asko sentitzen zituen bertako gorabeherak" diote.

Asteburuetan programak bazituen bere aldaketak. Hasteko, larunbatetan emazteekin etortzen ziren bezeroak. "Orain emakumeak asko alternatzen du, baina duela urte batzuk, Donostiko zona batzuetan edo ez bazen ez ziren tabernetara bakarrik sartzen", dio Maria Luisak. Gaur sartzen dira, baina ez asko. "Behin baino gehiagotan gertatu da, emakumeren bat atera hurbildu eta ¡uy cuanto hombre! eta alde egitea", dio barrez.

Eguerdiko hamabietan hasten zen txikiteoa. Txuria eta txakolina, beltza apenas, eta igandeetan bazkaldu aurretik batzuek bermuta eta besteek biterra. Arratsaldean, berriz, kafe konpletoa eta jokoa, 7ak aldean, 'zerbezero'-rako jaiki arte. "Zazpiak aldean zinetik ateratzen zen jendea izaten zen beste sarrera inportante bat", dio Maria Antoniak. "Amaia zinean Donostiatik zuzenean ekarritako pelikulak botatzen zituzten, eta kanpotik ere etortzen zen jendea, larunbatetan gehiago igandetan

baino", kontatzen du. Zortzi eta erdietan 'zerbezero'-a bukatu eta ardo beltza iluntzera arte. Kafe konpletoa eta jokoa.

Erretiroak eta buelta guztiak goizago egiten ziren arren, mugimendu gehiago egoten omen zen orduan, batez ere aste barruan. "Genero aldetik ere aukera askoz txikiagoa zen, baina gehiago edaten zuen, eta bariatuagoa", dio Maria Luisak. Jendeak bariatuagoa edaten zuen, eta esango nuke gehiago ere edaten zela", dio Maria Luisak. Enkarguren baterako edo izenik gogoratzen ez bazuten edateko ohituren arabera identifikatzen omen zuten jendea euren artean. "Halako orduan etorri eta halako edaten duenak enkargua utzi du beste honentzat. Orain, berriz, denak kasik batera etortzen dira eta berdina edaten dute", dio.

Hainbeste urtetan barraren atzean egonda ikasi ahal izan dutenaz galdetzen diegu. "Nik oso erraz eraman izan dut. Honbre, momentuak badauzkazu jendea haizea hartzera bidaliko zenukeena, baina klienteak konfiantzazkoak dira. Gehienetan barre pila bat egiten dut, esaten diet, 'egunen batean grabatu egingo ditut zuen zorakeriak'", dio Maria Luisak. Maria Antoniak aguantearen beharra aipatzen du, eta psikologia. "Jakin egin behar da bakoitzari zer eman. Eskua eman eta batzuek besua hartzen dizute, beste batzuek, berriz, behatza", dio. Maria Luisaren iritziz, psikologia bezain ezinbestekoa da tokatzen denean galantak esatea.

Egoera txarrean zegoen eraikina, berritzeak ere ez zien merezi, eta bota beharrean aurkitu dira. Tristura pixka bat ere eman die, "astebete egon naiz



ikustera joateko atrebitzen ez nintzela", dio Maria Antoniak, baina berehala berria egitekotan dira. Pareta meheagoak egingo dituzte eta toki gehixeago edukiko du, zaharrak orain egiten diren aldean oso lodiak baitziren, eta behealdean komun berriak jarriko dituzte. Gainerakoan eraikina, kanpotik eta barrutik oraingoaren berdina izango da. "Ez dugu beste 'Goiko' bat nahi. Barra toki berdinean jarriko dugu eta dekorazioa ere antzekoa izango da, marinel estilokoa", dio Maria Luisak. Obrak sei bat hilabete iraungo duela esan diete. Beraien ilusioa Santelmoetarako irekitzea da.

◀ ANTOKA AGIRRE

**KABI**  
TABERNA - ZUMAI  
Tel. 143379

**KALARI**  
Eguneroko bazkaria  
Pintxo eta bokatak  
Koadrilentzako menu bereziak  
Kazueltak eta plater konbinatuak  
Erribera kalea, 16  
Tel. 862517

**KRESALA**  
— edergintza —  
Baltasar Etxabe, 5  
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

## Hasi dira plaieroak

Jada hasiak dira Itzurungo hondartzan aurtengo plaieroen txapelketako lehen partidak jokatzeko. Urriaren 29an eman zitzaion hasiera berriro ere Zumaiako Futbol Taldea antolatzaile bezala duen txapelketa honi, eta esan daiteke dagoeneko talde batzuk hasiak direla nabarmentzen, lortu dituzten garaipenetan gol zaparrada ederrak izan baitira. Zaparradak: horiek izan dira, jokalariei eta futbolzaleek jasan behar zian dituztenak, partida hauek jokatzeko unean euria ere lagun izan baitute batzuetan.

Hamaika talde izan dira aurten izena eman dutenak. Horietatik hamar talde zumaiarrak dira eta bakarra kanpokoak, Debakoa, alajaina. Talde hauetatik gehienak urtero hartu dute parte

Zumaiako plaiero txapelketan, eta usadioari jarraituz, aurtengoan ere txapela lortzen saiatuko dira.

Zumaiarren aldetik honako talde hauek hartuko dute parte txapelketan: Kalari, Inpernupe, Trapaia, Ipurbeltz, No Soluxion, Oskarbi, Txixapa, Axier Kirolak, Ederki F.T. eta Metro taberna. Debako ordezkaria Pastang Pila taldea izango da.

Dagoeneko bi jardunaldi jokatu dira plaieroen txapelketan, bata urriaren 29an eta bestea azaroaren 4an. Lehen jardunaldian honako emaitza hauek izan ziren:

Kalari 5	Ipurbeltz 1
Axier Kirolak 0	No Soluxion 1
Ederki F.T. 4	Txixapa 2
Pastang Pila 4	Oskarbi 3

Azaroaren 4an jokatu diren jardunaldian, aldiz, honako emaitzak eman ziren:

Trapaia 4	Inpernupe 0
Axier Kirolak 2	Txixapa 4

Datozen asteburuetan jarraituko dute plaieroen partidak jokatzeko. Beti ere maren harabera jokatu dira, hau da, batzuetan goizean goizez eta besteetan arratsaldean. Ohiturei jaramon eginez gero, txapelketa San Telmo inguruan amaituko denez, partida ugari ikusteko aukera izango dute futbolzaleek Itzurungo hondartzan. Eguraldi txarrak ez dezala, behintzat, zaleen gogoia baretu.

◀ JUAN LUIS ROMATET



### Kartel bitxiak

Aurtengo txapelketa honetako kartelek badute berezitasun bat, aurreko edizioetakoekin parekatzen bada. Hasi berri den txapelketako jardunaldietan jokatu diren partidak zein diren iragartzeaz gain, argazki zahar batez hornituta agertuko dira kartel hauek. Jardunaldi batetik bestera argazkia aldatu egingo da. Argazki zahar hauetan orain urte dezente plaieroen irudiak agertuko dira. Argazki zaharren zaleek ziur txalotuko dutela ekimen hau.

**KUKUTZ**  
**serigrafia**  
 \*kamisetak  
 \*txiskeroak  
 \*paperezko poltsak, e.a.  
**baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69**

**AIZPURUA**  
 LIBRERU  
 DEND  
 A  
 Aita-Mari auzategia, 17  
 Tel. 943 861569

**LEIZE**  
 taberna  
 Juan Belmonte, 6 Tel. 860415

# Abenduaren 8an korrituko da Zakila Bira



Neguko hilabeteen atarian, jada hasiak dira hotzarekin zer ikusia duten kirol probak jokatzeko, eskuzko pilota txapelketa herrikoia, plaieroak, etab. Neguko proba horien barne sailka daiteke azken urteotan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den proba: Zakila Bira kross herrikoia. Aurtengo ekitaldia hilabete batzuk atzeratu da eta abenduaren 8an, ostiralez, korrituko da, Ama Birjinaren eguna ospatzen dela aprobetxatuz.

Jada lau urte dira proba hau korritzen hasi zirela, beti ere Zakila Bira izeneko aintzinako ibilbide bati jarraituz. Laisterkariak goizeko 10etan emango

diote hasera probari Erribera kaletik. Hortik Arroarantz joango dira, eta Iraetatik pasa ondoren, Aizarnazabaleko bidea hartuko dute. Munio-soroko bidegurutzean Oikia hartu beharko dute laisterkariak. Ibilbideko puntu gogorrenetakoa pasa beharko dute jarraian, Beduako goia, eta bertatik berriro ere Erribera kalera zuzenduko dira parte hartzaileak. Guztira 20 kilometro korritu beharko dituzte laisterkariak ibilbide gorabeheratsu batean. Aurreko urtean Oskar Iburguren eta Sonia Aragón izan ziren garaile eta lehen zumaiarrak, berriz, Jaime Osa eta Xabier Irureta izan ziren.

Zumaiako Atletismo Taldea eta Zestoako Kirol Bazkunak antolatzen duten kross herrikoia honetan parte hartzeko, Lubaki kiroldegian eman beharko da izena. Izenematea 1.000 pezetaren truke egingo da eta laisterketa baino ordu erdi lehenago ere izena ematea posible izango da. Proba honetan parte hartzen duten guztiek kamiseta bana jasoko dute opari. Orain prestatzen hastea besterik ez zaie geratzen laisterketa honetan parte hartu nahi duten guztiei.

◀ JUAN LUIS ROMATET

ILE APAINDEGIA

**herrea**  
**Uranga**

Etxezarreta, 19 Tel. 862342



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 861412

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3. blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

**Nikol**  **Enea**

**TABERNA**

Amaiako plaza Tel. 861440



**Rakel**  
**estetika**

kiromasajea  
tatuajeak

Aita Mari 42. behea TEL: 943 862093

Keixeta:

## "Nik pinturan sinisten jarraitzen diat"

*Txiki Agirre "Keixeta"*

*Arroako pintoreak Agoitz*

*Hiria nazioarteko pintura*

*lehiaketan lehen saria*

*eskuratu berri du. Joan den urrian jakin zen erabakia eta*

*Txikirekin batera Manu*

*Uranga gazte zumaiarra ere finalisten artean geratu zen.*

*Zelaiazpi tailerrean geratu gara.*



nian nerea ere, ze momentu hartan, behintzat, ez nian batere gustokoa kuadroa.

### ❑ **Eta orain ikusita? Denborarekin?**

Orain ikusita hobeto ikusten diat, baina ezta ere...

### ❑ **Esplikatu pixkat koadroa nolakoa zen.**

Neurriak esango izkit: uno ochenta por uno sesenta dek kuadroa, betiko teknikarekin dek. Hemengo horrek bezela elementu zentral bat dik. Kasu hortan ez dek botilla bat, baina bertikal bat dek. Orduan botilla baten itxura-edo ematen dik. Eta historia abstraktu batean oinarrituta ni neuretzako, jendeak gero elementu konkretoren bat ikusten dik. Horregaitik ari nauk orain hauetan tipo apurando más, zerbait konkretoagoa ere ikusi dadila.

### ❑ **Hor aldaketa bat ikusten da, elementu zentral bat jartzean eta esan daiteke figuratiboagoa lan egitean.**

Bai hala dek. Orain gehiago definitzen ari nauk lan honetan. Gero eta gehiago die figuratibotik. Ez dik esan nahi gerorakoa hola izango denik dena, baina... bai, momentu honetan, azken 3-4 hilabete hauetan horrela ari nauk.

### ❑ **Orain arte ezagutzen genituen olioetan hala ere ez zegoen figuratibotik asko.**

Bai, elementu figuratiboren bat beti egon izan dek, 20ko serie batean beti dago kuadro bat figuratiboa, elementu konkretuekin, beste linea guztia puskatzeko.

### ❑ **Hori jendeak eskatzen duelako izan da edo zergatik?**

Norberaren definizio nahia, ze momentu batzutan behar diat.

### ❑ **Zorionak, Txiki. Elkarrizketa hasiko dugu. Nola joan da lehiaketarena?**

Eskerrik asko. Ondo, lehiaketaren inguruan bazeukat anekdota bat, gero hik jarri zak nahi deken lekuan. Lanak aurkezteko egunaren bezperan goizaldeko ordubiak arte egon ninun koadroa bukatzen eta hurrengo egunean bederatzitan eraman behar nizkian nerea eta Zelaiazpiko besteen koadroak. Ni malaostian, ez ninun gustora gelditu koadroarekin eta furgoneta eraman behar nialako besteen lanekin, horregatik aurkeztu

**Rosi**  
garbiketak

- \* Etxeak eta dendak
- \* Enpresa eta auzo lanak
- \* Erropa garbiketeta eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 861670



**SIWA**  
Belardenda

Basadi 5C  
943 143404

- Elikadura, belarnak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

Azkenean jendearekin zerikusirik ez zeukak, nere behar bat dela. Ikuslearekin nahi izaten diat nora begiratu behar duen eta zertan zentratu behar duen agintzea nere obran, gero beti libre uzten diat, ikusleak kuadroa interpretatzeko askatasun hori hor zioak.

**3 Teknikari begiratu, koadroetan erabilitako paper horiek, kollagearen teknika azken finean, nahiz eta gero tintak eta bota gainetik, beti dira lisoak. Paper birziklatua da, baina inoiz ez da azaltzen argazkirik edo letrarik, ez da aldizkari edo egunkarietako paperik izaten.**

Batez ere paper bakoitzaren nortasuna erabiltzen diat, material bezala; batak besteak baino gehiago absorbitzen dituk, besteak kolore intentsitate bat ematen diate, edo brillo bat. Kollagea marrazki bezala ere erabili izan diat, gainera era probokatu batean: illoba txikia ekarri izan diat eta rotuladorea-ekin eginarazten ziot, pintatuiak nahi dekena, eta igual goiz batean 40 dibujillo egiten zizkiak. Eta hoiek bai; hartzen dizkiat interesatzen zaizkian-kenak gero erabiltzeko.

### Lehiaketak

Gauza bat esan nahi diat lehiaketa beraiei buruz. Jendeak gero komentatzen dik: ze gustora lehen saria-ekin? Eta holakoak. Lehenengoa izate horrek ez dik ezer esan nahi. Hemen (Agoitzen) 132 kuadro hitun; ehunda-hogeitapiku hoietatik 40-50 interesgarriak hituan, eta 40-50 hoietatik 15 garrantzitsu zeuden. 15 hoietatik edozein izan zitekeen irabazlea. Ni 15 hoein alturan nengoela uste diat, suertea izan diat. Epaimahaikoa zein

tokatzen zaiken, hire obra gustokoa izatea edo ez... baina azken 15 hoietan tonbola antzeko bat izaten dek.

**3 Horrelako gauzek, ordea, gero ate asko irekitzen dituzte, ez?**

Nik badiat erakusketa bat udaberri-rako Iruñako galeria batean, Montmart galerian, sariaren ondorioz sortua. Lehendik hitz eginda nian, baina horrek erabaki dik gauza.

**3 Beraz pinturatik bizi daiteke?**

Ni bizi nauk, sobrevivo.

**3 Eta hori Zumaia-irten gabe?**

**Ze, normalean, horrelako gauzak saltzeko kanpora irten behar da.**

Ez hemendik moituta. Salmenta puntuak dizkiat: Donostia, Iruña eta Galizia. Zumaian ezinezkoa dek bizitzea, etxera ez dek inor etortzen ezer erostera. Hangoak galeriak eta dendak dituk. Baina ez, vivir ez, sobrevivir egiten diat.

**3 Eta merezi du horrelako bizimoduak? Gauza asko sakrifikatu ere egin beharko dira.**

Nik aspaldi erabaki nian, orain dela 17 urte erabaki nian merezi zula. Enpresa batean egiten nian lan eta momentu batean nahiago izan nian bide hau hartzea, eta aurrera. Berez técnico electrónico nituan eta zeramika klaseak ematen ere ibili nituan 17 urte nizkianean. Ni baino askoz zaharragoa zen jendeari ematen nizkian klaseak. Hori bai, gauza asko uzten dituk alboan. Gero sariak eta holakoak ondo zeudek errekonozimendua delako, baina bigarren maila batekoa dek, nik bazekiat zertan ari nauken. Gero jendeari egiten dekena gustatzen bazaio, ba, hobeto.

**3 Teknologia berriez ere hitz egin beharko dugu, hemen dauden ordenagailuak-eta ikusita.**

Deputamadre etortzen dituk gauza batzutarako: katalogoak egiteko etab. Nere lanean ez die ezertarako balio. Norbere eskuak beti nortasuna ematen die, ofizioa esaten dena.

**3 Eta ez al da erromantikoa gaur egun pintura egiten aritzea?**

Ez diat uste. Pintura-pinturan jende pila bat ari dek lanean nortasunarekin; beste jende pila bat itxura egiten bakarrik. Baina benetako lanak ateratzen dituk oraindik. Nik pinturan sinisten jarraitzen diat. Uste diat aspaldian pintura kontuak eta galdu direla kanpotik datozen eraginengatik. Teorikoek erabakitzen dute zer egin behar den eta New Yorken eta kanpoan egiten dena garrantzitsutzat jotzen da. Hau teorikoek erabakitzen dute eta artistak doaz teorikoen atzetik. Jende gazte asko zio kanpoan zer egiten den begira, nortasuna galtzen die.

**3 Eta hire obran zerk eragiten dik?**

Eguneroko gauzak: naturak, eguraldiak, auzoko lagunak, eguneroko bazkariak, baina, batez ere, obra berak: atzo egindakoak gaurkoa egiteko eta gaur egindakoak biharkoa egiteko.

**3 Eta bukatzen joateko, aurrera begira proiektuak?**

Momentu honetan ari nauk lehiaketa gehiagotarako kuadroak pentsatzen gero Donostiarako enkargu konkretu bat zeukat, eta erakusketak lotuta zeuzkat Iruñan eta Zarautzen.

◀ JON MANTZISIDOR

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A



liburuak  
aldizkariak  
CDak  
komikiak  
eta  
fantzineak

ERRIBERA 10  
TEL: 943 86 21 14

# “Zumaiak XX. mendeari agur” bertso liburuxka salgai

Urte hasieran banatu ziren II. bertso paper lehiaketako sariak, Joanito Dorronsorori egindako omenaldian, hain zuzen ere. Aurrerantzean, gainera, lehiaketak “Joanito Dorronsoro saria” izena hartuko du.

Iaz egin bezala, aurten ere parte hartu duten lan guztiak liburuxka batean bildu dira, eta irudi eder batzuek hornitu. Gogoratu Eneko Dorronsorok irabazi zuela txapela, aurreko urtean bezalaxe, eta Xabier Azkuek eskuratu zuela bigarren saria. Gainerako bertso jartzaileak Ibon Aizpurua, Manu Garate, Eladio Leturiondo eta Josu Manzisidor izan ziren.

Honako tokietan aurkituko duzu salgai, 200 pezetan: Taosa liburu dendan, Erribera kaleko Errota okindegian eta Aizpurua liburu dendan.



Baleikeko harpidedunek etxean jasoko dute ale bana, erabat doan.

Amaitzeko, aurreko bi urteetan epaimahaikide izandako Asintxio Elustondo gogora ekarri nahi genuke, bertsozale amorratua eta jartzaile fina bera, apirilean bat-batean utzi gintuena. Liburuxkak argia ikusi baino lehentxeago joan zitzaigun, eta han ezin izan genuenez, lerro hauen bitartez gure esker ona adierazi nahi diogu Asintxiori egindako guztiagatik, eta baita liburuxkaren eta aurtengo sariketaren bitartez omenalditxo bat eskaini ere.

◀ XABIER AZKUE

### III. bertso paper lehiaketa Joanito Dorronsoro saria

**Kopurua:** 6-10 bertso

**Gaia:** “Zumaiako txoko, bazter eta inguruneak” (bat aukeratu eta hari buruz)

**Epea:** Abenduaren 22a

**Tokia:** Foronda Kultur Etxea

**Sariak:** 1. saria 30.000 pta.koa, 2.a 20.000koa

**Oinarriak osorik Forondan**

**ZUMAIAKO BERTSO ESKOLA**

Tel. 143278

**Maite**  
ileapaindegia

ile-apaindegia

**Maxi**  
ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21

MILA ILE APAINDEGIA

Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiliita
- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

*fidatzeko baimen guztiak*

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416

**ttikittaka**

haur  
oinetakoak

BALTASAR ETXABE 2/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA



# azaroa

## ARGAZKI AUKERAKETA 2000:

argazkiak aurkezteko epea abenduaren 11 bitartean. Oinarriak Kultur Etxean.

## ZUMIAKO II. ESKAPARATE LEHIAKETA:

Oinarriak Kultur Etxean. Sari banaketa, abenduaren 20an.

## IRTEERA:

BILBORA GOAZ: Arte Ederretako Museoan Zurbaran-en bilduma, eta Etnografia Museoan Artzaintza eta Historiaurrea.

► Azaroak 25

## IKASTAROK:

• **Oinarrizko Aromaterapia:** Lehen eguna azaroak 11. Matrikula: 4.000 + 4.000 materialetarako.

► Larunbatetan, 10etatik 13etara.

• **Eskulan Tailerra:** Bainikak egiten. Azaroaren 17an hasita. Matrikula, hiru hilabete, 6.000 pta.

► Ostiraletan, 3etatik 6etara.

## ERAKUSKETAK ETA

### JARDUNALDIAK:

Artelatz Ingurugiro Zerbitzuaren "ENFOKATU ZURE MUNDUA"

► Azaroak 13-24

Foronda Kultur Etxean

CARMEN IRAUNDEGUIren pintura eta eskulanak,

► Abenduak 1etik 17ra arte

Eskola Profesional Zaharrea.

## DIAPPOSITIBA EMANALDIA:

Nekane Intxaustiren "Aljeriako izadia: Mitidja berdetik urrezko Sahara aldera"

► Osteguna 16, 19.00etan

Forondan

## ZINE FORUM SAIOA

"Las confesiones del doctor Sachs"

► Osteguna 16, 22.15etan

Aita Mari zinean

## AUDIZIOAK:

Sta. Zeziliaren omenez, Musika Eskolak antolatuta.

► Asteazkena 22

Ubillosen

## KONTZERTUA

Itxaso Elkarte abesbatzaren "Zarzueta eta Opera"

► Ostirala 24

## SANTA ZEZILIAREN OMENAKO KONTZERTUA

Musika Eskolako Banda Txikiak eta Udal Musika Bandak eskainia.

► Igandea 26, 13.00etan

## ZINE FORUM SAIOA

"Wonderland"

► Osteguna 30, 22.15etan

# abendua

## SAN PEDRO TXIKI ETA TXIKIENAK ABESBATZEN DISKOAREN

### AURKEZPENA

Juan Carlos Irizarrekin.

► Larunbata 2, 18.30etan

Maria eta Jose aretoan

## IV. ZAKILA BILA

► Ostirala 8, goizeko 10etan

## DIAPPOSITIBA EMANALDIA:

Iñigo Krug: "Izotza eta sua: bi bidaia Antipodetara"

► Osteguna 14, 19.00etan

Forondan

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

## PINTURA TAILERRA

### LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30-13.30 eta 16.00-20.00.

Larunbatean, 10.00-13.00

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, 16.00 - 20.00

### ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00etara

### INTERNET

Helduen liburutegian.

► Astegunetan, 10.00-13.00 eta 16.30-19,30

**TXALAPARTA**  
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2  
Tel. 143089



**TXINGURRI**

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMARRA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.900 ZARAUTZ  
(GIPUZKOA)  
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 04 40

Jardinen diseinu  
... mantenimendua  
Nekazaritza zerbitzuak  
Kiri-zelaien mantenimendua  
Txostenak ...  
analkularitza teknikoak,  
Balazkoak



Artadi auzoa  
Tel. 862189

# ZINE FORUM

Azaroak 16, osteguna.

**Las confesiones del Dr. Sachs (1999)**

**Zuz:** Michel Deville

**Akt:** Albert Dupontel, Beatrice Bruno

Nahiko egoera kaskarra igaro ondoren, estatu frantziarreko zinea berriro era indartzen hasia da. Hor daude adibide bezala, Bertrand Tavernier beteranoak zuzendutako *Hoy empieza todo* biribila, edota Mathieu Kassovitz buru dutela abiatzen datozen zinegile gazteek jorratzen duten filmegintza konprometitua. Aipatutako Tavernier-en maisulanaren ildotik doa azaroan Aita Marin ikusi ahal izango dugun *Las confesiones del Dr. Sachs* hau. Sekulako arrakasta izan duen "La maladie de Sachs" liburuan oinarritu zen Michel Deville zuzendari zaharra gizartearen eragin zuzena duen profesionalararen etika eredugarria erakusteko. Pelikula honek etikak bere gaixoeekin bat egitera behartuko duen herriko mediku baten bizitza kontatuko digu. Era oso humanista batean kontatutako film hau 1999ko Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen, eta bertan sekulako txalo zaparrada jaso zuen.

Azaroak 30, osteguna.

**Wonderland (1999)**

**Zuz:** Michael Winterbottom

**Akt:** Shirley Henderson, Gina Mckee

Urteak aurrera doazen bezala, Michael Winterbottom zuzendari britainiarra zine europarreko zinegile interesgarrietakoa bihurtzen ari da. Bost urte eskasetan jada zazpi pelikula egin ditu, denak ere interes maila handikoak. Orain urte eta erdi inguru bere *I want you* filma ikus ahal izan genuen Zumaian; orain, aldiz, bere maisulantzat jo dezakegun Wonderland hau aurkeztuko da Aita Mari zinean. Zuzendari gazte honek kamera bizkar gainean hartu eta kalera atera zen London hiriko bihotz taupadak film batean islatzeko asmoarekin. Aktoreak ezezagunak dira baina kontatzen duena edozeini gerta dakioke, Winterbottom-ek Wonderlanden kontatzen duena bizitza baita, bere gauza on eta txarrekin.

## Irakurketarako aukerak

**Euskaraz**



**Mantxut?**

**101 gau**

**Agur Euzkadi**

**Katiluaren ipurdia**

**Eta emakumeari sugeak esan zion**

Asisko Urmeneta

J.M. Olaizola "Txiliku"

Juan Luis Zabala

Martin Etxeberria Garro

Lourdes Oñederra

**Gaztelera**



**Vías de extinción**

**Juegos de poder. Política**

**Pensamientos mortales de una dama**

**Salón de belleza**

**Espía de los mares**

Angela Vallvey

Tom Clancy

Luis Antonio de Villena

Mario Bellatín

Jonathan Lunn

**Haurrak/Gaztetxoak**



**Axa Mixa Zilara**

**Amona zure iholdi**

**Leiendak**

**Bidai**

**Urte askoan**

J.M. Olaizola "Txiliku"

Mariasun Landa

Karmelo Etxegarai

Patricia MacLachlan

Carmen Vázquez-Vigo

**Ur-gintza s.l.**

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK

GAS NATURALA - IMPERMEABILIZATZEAK

ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK

SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g  
20740 IRAETA - ZESTOA

Tel. 148082  
Faxa: 148124  
78 postakutxa

**ARozTEGIA**

**Urola 2000, s.l.**

\*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa  
\*Baserrien zaharberritzea  
\*Enbarkazio konponketa  
\*Ate, zokalo tarima eta pertsianak  
\*Armairu enpotratuen aurrealdea  
\*Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505



**Argazki eta bideo erreportaiak**  
**Errebelatzeak**  
**Kamarak**  
**Musika**

Erribera kalea z/g Tel. 861705

# Azken Taupada

## lehen maketa kalean

*Zumaiako Azken Taupada taldeak bere lehen maketa atera berri du. Maketa hau Donostiako Lucas estudioetan grabatu zuten irailean. Aitor, Li, Branka eta Gutik soinu gogorra, erritmo azkarrak eta ahots gordinak erabili dituzte lan hau osatzen duten zazpi kantetan. Honi buruz zertxobait gehiago jakiteko taldeko Branka, Li eta Gutirekin hitz egin dugu.*

- ❑ Zer moduzko esperientzia izan da zuen lehenengo grabaketa?**  
Esperientzia ona izan da, aberasgarria, nahiz eta nahiko zaila iruditu grabazio kontua, izan ere teknikoak ez zizun askorik lagundu produkzio lanetan.
- ❑ Zuen letretan gehienbat heriotzari buruz hitz egiten da, zergatik?**  
Taldearen izenak heriotzarekin zer ikusia dauka, eta maketaren portadak ere pertsona baten Azken Taupada irudikatzen du. Guretzat gai oso zabala da, inspirazio iturria da. Horretaz gainera, maketa Agi eta Toskarri



Azken Taupadaren lehen taupadak

eskaini diegu, oso gazte hil baitira. Agi gure koadrilakoa zen, horregatik "Jaiotzetik kondentatua" kantak berari buruz hitz egiten du.

**❑ Nolatan egin duzue kanta bat butaneroari buruz?**

Butaneroak, eguerdiko bozinazuakin siestatik altxatzeaz gain, grazia egiten digu. Letra barregarri bat egin nahi genuen eta gai ona iruditu zitzaigun horretarako.

**❑ Zein motatako musika entzuten duzue?**

Sepultura, Jazz-Berri, Anestesia, Bellum 9, RHCP, Machine Head, Eskorbuto, Ktulu, Tamara...

**❑ Horrelako influentziak edukita, orokorrean talde hauek baino musika gogorragoa egiten duzuela iruditzen zait.**

Beno, oso kañeroak gara, barrutik ateratzen zaiguna egiten dugu. Musika oso kañeroa entzutea baino gehiago gustatzen zaigu jotzea.

**❑ Zer egin duzue maketa promozionatzeko?**

Leku askotara bidali dugu, Euskadi Gaztera, etab. Inguruko tabernetan ere zabaldu ditugu. Eibarko taberna batean ez digute saltzen jarri nahi izan, kamareroa mozketzen denean edozeini cd-ak erregalatzen hasten delako.

**❑ Zer moduz daramazue famaren pisua?**

Bai, oso pisutsua da, aberastasunez gainezka gabiltza, ezin ditugu fansak gainetik kendu eta segurata batzuk kontratatatu ditugu horretarako.

**❑ Kontatzeko moduko anekdotarik?**

Arrasateko Bertixe salan jo genuenean zazpi pertsona (denak zumaiarrak) egon ziren. Lo egitera lagun baten pisura joan ginen, eta komuna ataskatu genuen Aitor eta Li Arrasatek galduta zebiltzan bitartean.

**Kontaktoa:**

607370250 – Aitor;  
943861605 – Jon

◀ HAIZE GALARRAGA

B. Etxegarai 2, behea  
943 86 27 14

Y  
I  
N

Y  
I  
N

GAZTEEN ERROPA



**ZALLA**  
Taberna - Erreteria


\* plater konbinatuak  
\* otartekoak  
\* oilasko erreak

San Pedro, 4      Tel. 862387

Zerbitzu Ofiziala  
**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22      Tel./Faxa: 143143





2004/7/12

# argazki zaharra



*Hau da hau koadrila! Cartagenatik etorri karroan lan egitera, eta golfo galanta naizenez, antzeko koadrila bilatu behar! Hor daude besteak beste Migel Angel Pordillos, Xegundito, Suso, Txomin... Francisco izenez etorri eta iritsi orduko Patxi Zubiaurre bataiatu naute, zer eta Ortiz-etik ateratzen diren neska gazteei begira geratzen naizelako zubipean! Euskaraz tutik ez dakit, baina koadrila euskaldunean onartu naute, koadrilen arteko jokoetan saltoan irabazi nuelako! Hori bai, azkar asko esan didate ez dutela beraien hizkuntza aldatuko ni hor egoteagatik, baina lasai, pixkanaka ikasiko det-eta. Oraingoz sorpresa edarra prestatu diet behintzat: datorren astean Aita Marin dugun afariaren erdian jaiki eta honakoa esango diet: "hogeita zortzi lagunak neriak eta ni bakarrik erdalduna". Hori da sustoa emango diedana!*



**Zumaia Hotela**  
Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64



**Loitz**  
\* Eskola eta bulegorako materiala  
\* Enkoadernazioak  
\* Fax publikoa  
\* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4      Tel./Faxa: 143422



**malaur**

# Urolthermik

## Arotzia Metalikoa



### POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiuzko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiuzko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia  
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

# berria!

## XSARA

## ZUMAIA MOTOR



**CITRÖEN  
ZERBITZU  
OFIZIALA**

Santixo auzoa, 22 Tel. eta Faxa : 943 143 143

**mekanika orokorra • erakusketa • salmenta • bigarren eskuko autoak**

KOSTA GAS C.B.



REPSOL

BUTANO

ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6  
ZUMAIA  
TEL. 861078

## KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA  
EGITEN DITUGU.  
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO  
KONPROMEZURIK GABE




*Zatoz eta galdetu*

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO



# S DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel: 943 86 20 51

● Sukalderako hornikuntza diseinuak.

● Lanen zuzendaritza.

● Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak.

Kalitate-prezioan parekorik ez.

